

GABONETAKO PINTURA LEHIAKETA.
Lehiaketaren oinarriak – 2022

Lehiaketa honetan 14 urtetik beherako amurriarrek eta honako arau hauek onartuko dituzten guztiek hartu ahal izango dute parte:

1. Derrigorrezko gaia: “*Gabonak*”. Lehiaketa honen helburua haurren marrazketa eta pintura sustatzea da, Gabonetako jai-testuinguruan.
2. Lanak egiteko mota guztietako konposizio teknikoak onartuko dira: marrazketa, pintura, collage, etab. Lehiakide bakoitzak bakarrik obra bat aurkez dezake.
3. Lan bakoitzak gehenez autore bi izan dezake.
4. Aurkeztutako lanek 50x40 cm. gehieneko neurriak izan beharko dituzte. Koloreztatutako fotokopiak ez dira onartuko.
5. Lanak kultura etxeko bulegoetan aurkeztu beharko dira, abenduaren 5etatik 17ra, biak barne.
6. Lanaren atzealdean egilearen ondorengo datu hauek zehaztu beharko dira: izen eta abizenak, adina, telefono zenbakia eta lanaren izena.
7. Aurkeztutako lanak abenduaren 28tik urtarrilaren 7ra bitartean (lan egunetan bakarrik) “La Casona” Udal Erakusketa aretoan erakutsiko dira.
8. Sari banaketa abenduaren 28an 18:00an “La Casona” Udal Erakusketa aretoan izango da.
9. Partehartzaile guztiek opari bat izango dute.
10. Lehiaketak ondorengo sari hauek izango ditu:

A- Maila, 6 urte arte (2016an jaiotakoak barne):

- 1º Diploma eta oparia.
- 2º Diploma eta oparia.
- 3º Diploma eta oparia.

B- Maila, 7-10 urte bitartekoak (2012 eta 2015 bitartean jaiotakoak):

- 1º 60 € (marrazketako materialean) eta diploma.
- 2º 50 € (marrazketako materialean) eta diploma.
- 3º 40 € (marrazketako materialean) eta diploma.

C- Maila, 11-14 urte bitartekoak (2008 eta 2011 bitartean jaiotakoak):

- 1º 70 € (marrazketako materialean) eta diploma.
- 2º 60 € (marrazketako materialean) eta diploma.
- 3º 50 € (marrazketako materialean) eta diploma.

11. Juan de Aranoa Udal Arte Eskolak proposaturik, artearen munduarekin zerikusia duten hiru lagunek osatuko dute epaimahaiak. Epaia apelaezina izango da. Epaimahaiaren esku geratzen da lehiaketarako obrak baloratzeko irizpideei buruzko erabakia. Hala ere, bere epaitza honako hauetan oinarrituko da:
Proposatutako gaiaren interpretazio berria (%25)
Gaitasun teknikoa (%25)
Osaera eta oreka (%25)
Inpaktu bisuala (%25)
12. Saritutako lan guztiak “Juan Aranoa Arte Eskolaren” jabetzapean geratuko dira, lan horien erreproduzio eta erakusteko eskubidea beretzat gordeko duelarik.
13. Batzorde Antolatzaileak aurkeztutako lanak arretaz zainduko ditu baina lanak hondatu edo galduko balira ez du erantzukizunik izango.
14. Lanak urtarrilaren 11tik aurrera hartu ahal izango dira, 15 eguneko epean hartuko ez diren lanak Batzorde Antolatzailearen jabetzapean geratuko dira.

15. Saridunei jakinarazpena udal web orrialdean agertuko da.
16. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauen onartzea dakar.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO KULTURA ETXERA DEITU, TFNOA. 945.891.450.
ANTOLATZAILEA: AMURRIOKO "JUAN ARANOA" ARTE ESKOLA.
BABESLEA: AMURRIOKO UDALA.